

Homero eta gu: itzulpen bat(zu)en inguruko oharrak eta beste¹

— — — — —
JOANNES JAUREGI

Introitus

Homeroz, *Odiseaz* eta duela 2.500 urteko testu bat ingelesera enegarrenez itzultzeaz. Itzulpen feministez (?), txakurrez, esklaboak urkatzeaz eta metafora generodunez. Apai-zez, kanonaz eta Shakespeareren besaulkiaz. Zergatik horrek guztiak ez duen bost axola, edo, batek daki, agian bai.

Dramatis personae

Homero (idazlea) Mendebaldeko literatura-kanon hegemonikoaren harroina, sekula jaio zenik ere ziurta ezin dezakegun gizon zuria. Historiaren gandutik guri bertsotan irudikatzen dugun bardo itsua, Greziako hiri ia

guztietan jaio bide zena, *Iliada*, *Odisea* eta beste hamaika poema homeriko ondu zituena.

Emily Wilson (itzultzailea) Britainia Handian jaiotako filologo klasikoa, zortzi urterekin *Odisearen* antzerki batean Atenea jainkosaren rola jokatu eta harrezkerotik maitemindua mundu klasikoarekin («giltzarria izan zen nire bizitzan»). Haren jardun akademikoak izenburu zoragarriko saiakerak eta artikulua eman dizkigu. Adibidez: «Slut-shaming Helen of Troy; if we blaim her for the Trojan war, what does it say about us?» [Helena Troiakoa putatzat jotzea: hari leporatzen badiogu Troiakoko gerra, zertan gara gu?].²

1. Artikulu hau Hitzen Uberan atarian argitaratu zen 2019ko azaroaren 29an.

2. Artikulua 2014ko apirilaren 27an kaleratu zen, AEBko *The New Republic* aldizkarian. Sarean eskuragarri dago: <https://newrepublic.com/article/117430/helen-troy-beauty-myth-devastation-ruby-blondell-reviewed>

Primus: Odisea itzultzeko odisea

Zaila da asmatzea nondik hasi Homeroren inguruan hizketan, are gehiago gaur egungo euskal literaturaren plazan. Hain iruditzen zaigu figura urruna, eta halako beldurra hartu diogu *kanon* hitzari, ezen ez baikara ohar-tu ere egiten nolako hutsunea dugun gure literatura itzuliaren zelaixoan. Eta ez Homerorekin bakarrik, berdin gertatzen baita klasiko greko-latinoekin oro har: haien ize-nak erori egin dira gure itzulgaien zerrendetatik, gure *kanon* partikularretik, eta, ohar-tu bagara, bost axola zaigu.

Konparazio esanguratsu bezain bidegabe batean laketze aldera, gatozen ingeles ahal-guztidunarenera. *Odiseak* bakarrik hirurogei bat itzulpen ditu ingelesez: horien erdiak azken ehun urteetan emanak dira, eta dozena bat inguru, azken bi hamarkadetan. Sekula ezin gatzazkio ingelesari justuki konpara, baina deigarria behintzat bada grafikoak hain kontrajarriak izatea; gu hutsean, eta haiek, erritmoa biziagotuz.

Eta, itzulpenen ugaritasun horrek ezinbestean izango duen arren lastoa ugari, bada urregorrikeri ere lastategian, hala nola Emily Wilsonen 2018an plazaratutako *Odisearen* itzulpena. Lehendik ere bazuen saiakerarik eta obra klasikoaren itzulpenik, baina Homerorena du *magnum opusa*. Ez soilik Homeroren izenaren pisuagatik, baizik eta nagusiki itzultzailearen beraren lan izugarriagatik.

Hasteko, lehen hautua: *Odisea* bertso-lerro neurtuan ematea, jatorrizkoa dagoen bezala, eta jatorrizkoaren lerro-kopuruari eutsita. Esan beharrik ez dago nolako ahal-legina eskatzen duen horrek: inoiz itzulpen batean lerrorik neurtzen saiatu den orok

daki ez dela lan samurra; zer esanik ez duela 2.500 urtetik gorako testu batekin. Horrez gain, merezi du estiloa ere aipatzea: Homeroren nonahiko itzultzaile ez gutxi Erdi Aroko hizkera arkaiko batean saiatzen dira, erregistroa artifizialki puztuta testua goratze aldera. Baina Wilsonen argudiatzen du Homeroren hizkera laua dela oso, apenas mendeko perpausik gabea eta apaingarri gutxikoa (izan ere, ahozko erregistroan du jatorria). Eta halaxe eman du berak ere: testua soil eta xume, hizkera arrotu beharrean hurbilduta eta gaurkotuta, Homeroren hitzen poetikotasun berezko horren bila.

Itzulpen-lanaren eskergari erantsi behar zaio erudizioz betetako sarrera bat, ia laurogei orrikoa, azaltzen dituen ez soilik Homeroren poema eta testuingurua, ezpada baita obraren beraren giltzarri ez gutxi ere, sakon eta kritikoki aztertuta. Aparatu kritiko horren osagarri ditugu: itzultzailearen ohar benetan argigarria, ohar-sorta jori bat eta glosario xehe bat.

Eta, hala eta guztiz ere, honako titular honek bete zituen egunkariak: «Emily Wilson, *Odisea* ingelesera itzuli duen lehen emakumea».

Secundus: itzulpen feminista bat?

Eta agian bada garrantzitsua itzultzailearen sexuaz hitz egitea, baina ez kontu estatistiko morbosoa hutsez, *Odisea* emakume batek itzultze hutsa lorpen bat balitz bezala, baizik argi adierazteko nola *Odisea* ingeleseratu duen lehen emakumeak hankaz gora jarri dituen aurreko itzultzaile gizonezko guztiek lerro-lerro errepikaturiko konbentzio matxistak.

Ez dakit noraino den zilegi itzulpen bat *feminista* dela esatea, niri behintzat ez baitagokit halako kalifikatzaileak banatzen hastea, are gehiago itzultzaileak berak hitz hori aipatu ez duenean. Baina ezin ukatuzkoa da Wilsonen beren-beregi hartu duela *Odisearen* itzulpenen tradiziozko matxismoa kimatzeko lana. Juzga bitza irakurleak itzultzailearen hitzak (89. or.):

Saiatu naiz ez ekartzen gaur egungo sexismorik antzinako poema honetara, eta, aitzitik, argi azaleratzen testuan bertan existitzen diren sexismo- eta patriarkatu-forma bereziak, zeinak erdizka baino ez baititugu ezagutzen gure mundutik.

Xedea ez da, hortaz, jatorrizko misoginia bazterreztin eta antzinakoa estaltzea edo zuritzea, baizik eta kontrakoa, argi eta garbi bistaratzea, eta ez eranstea gaur egungo sexismorik. Errepara diezaiegun pare bat adibide argigarri.

Odisearen laugarren kantuan, Telemako, Odiseoren semea, Espartara iristen da, eta bertan ostatu hartzen du Menelao erregearen eta haren emazte Helenaren etxean. Gogora dezagun: Paris printze troiarrak *Menelaori emaztea babitu* ziola-eta hasi zuten Troiako gerra; barka horrela formulatzea. Bada, gerra haren ondorenean gaude Telemako Espartara iristen den honetan. Hain zuzen, anfitrioiak gonbidatuekin afaltzera doazela, Helenak Troiako gerra aipatzen du, eta bere buruari erreferentzia egiten *κυνώπις* (kunopis) adjektiboa erabilita; literalki, «txakur-aurpegia» esaten dio bere buruari. Konplexu samarra da txakurrekiko lotura irudizko hori, baina Wilsonen aurreko ingeleseko itzultzaileak testua baino askoz

urrutiago doaz; lasai asko, gainera: Robert Faglesek *shameless whore* [puta lotsagabea] gisa itzultzen du; Richard Lattimorek eta Walter Shewringek, *shameless me* [lotsagabea ni]; Martin Hammondek *whore* [puta] baino ez du ematen, eta Anthony Verityk, berriz, *shameless bitch* [puta lotsagabea], baina *bitch* hitz berezi horrekin, zeinak ingeles berezkoan «zakur-emea» esan nahi baitu.

Emakumeen eta txakurren arteko lotura hori behin baino gehiagotan agertzen da *Odisean*, baina konplexuagoa da hitzak gaur egun iradokitzen dituen konnotazioak baino, besteak beste gizon batzuk ere konparatzen baitira txakurrekin; hainbat modutara, gainera. Txakurrekiko konparazio horrek gehiago du zerikusia gizarte-arauen hausturarekin eta bulkada eutsiezinekin; emakumeez mintzo, zama misogino argia dauka, baina inola ere ez gaur egun *puta lotsagabea* idatzita iradokitzen dugun berbera. Kontuan hartzekoa da, gainera, mintzaldi horretan Helena bera ari dela bere buruaz. Hona hemen Wilsonen itzulpena:

They made my face the cause that hounded them.

Troiara gerrara joan zirenez ari da Helena, esanez bere aurpegia hartu zutela gizonen gerrara bultzatu edo *zakurtu* (*to hound*) zituen arrazoi gisa. Oso itzulpen eztabaidagarria da, eta aski kritikatu izan da, testuak indarra galtzen baitu, tonu neutroago berrantzt lerratuta. Baina arazoa ez da hori, ezta Homeroren beraren misoginia ere, ezpada Wilsonen aurreko itzultzaile askok misoginia garaikidea eransteke joerari men egin diotela batere lotsarik gabe. Are gehiago, nabarmentzekoa da joera horrek hiztegieta-

rainoko bidea ere egin duela, eta, tradizioan *Odisearen* pasarte hori duen arren adibide bakarra, ingelesezko hiztegi prestigiotsu askok eransten dioela «lotsagabea» adiera κυνώπις hitzari. Konbentzio misogino horien indarra erakusten du horrek, bai eta Wilsonen erroka ere.

Badugu beste hitz arantzatsu bat ere: δμωαί (dmoai); literalki, «etxeke neska-esklabo». Wilsonek hainbat modutara itzuli du obra osoan, testuinguruaren arabera hautatuz *esklabo* edo *neska-esklabo* edo *neska* bakarrik. *Odiseako* protagonista nagusiak nobleak izanik, klase-auziak garrantzi berezia dauka; zenbait itzultzailek *neskame* eta antzekoak erabili izan dituzte, baina esklabo-motaren zehaztasun horrek sarritan ezkutatu egiten du esklabotzaren beraren egitatea, Wilsonek ezinbestean eta berariaz gogorarazten diguna. Izan ere, esklabotzak berekin dakar jabetza, nagusiarekiko mendekotasun erabatekoa. Hori gogoan hartu beharrekoa da ondorengo pasarte ulertzeko.

Odisearen akabera aldera, Odiseok, etxera iristen denean, akabatu egiten ditu Peneloperekin ezkondu nahi zuten gizonak. Horren ostean, gizon haiekin sexu-harremanak izan dituzten³ *etxeke neska-esklaboak* ezpataz hiltzeko agintzen dio Telemako semeari. Telemakok, aldiz, urkatu egiten ditu, ez baitie heriotza «garbi»rik eman nahi «neska» (δμωαί) horiei. Bada, Wilsonen aurreko itzultzaile gehienek *puta* ematen dute δμωαί hitzaren ordain gisa. Irakurleak ederki sinetsiko luke Telemakok *puta* esaten

diela, ez baitago lekuz kanpo haren mintzaldian eta ekintza osoaren testuinguru misoginoan. *Put*a itzultzeak iradokitzen digu beren portaeragatik direla zigortuak, izandako sexu-harremanengatik. Baina testuak ez du *puta* esaten, δμωαί baizik, eta orain arteko itzultzaileek aski era misoginoan behartu dute hitza ekintzaren testuinguru orobat misoginora. Wilsonek *neskak* esaten die, eta aski da horrekin.

Merezi du arin batean erreparatzea *Odisearen* euskarazko itzulpenari, badaukagu eta. Aita Santi Onaindiak egin zuen, Luis Segalá espainierazko itzultzailearen bertsioari orpoz orpo segituta, bai behintzat goian aipatu ditugun bi adibideei dagokienez: Helenak [n]jeuk, txakur-begidun honek esaten du euskaraz ([f]uisteis por mí, ojos de perra, gaztelaniaz), eta Telemakok hildako neskak *mirabeak* dira, gaztelaniaz *esclavas* diren bezala.

Beharbada inor harrituko da ikusita zenbat itzulpen desberdin ametitzen dituen *Odiseak*. Wilsonek argi du bere testua jatorrizkoaren erabat bestelakoa dela eta ezinezkoa dela itzulpen batek leiho garden batek bezala erakustea irakurleari zer dagoen bestaldean, are gehiago duela 2.500 urtetik gora idatzitako eta bertsotan itzultitako testu batekin. Askoz hobeto azaltzen du Wilsonen berak bere *Odiseako* itzultzailearen oharrean (86. or.):

Itzulpen fidelaren —non itzulpena bigarren mailakoa den gizonezko egilea duen originalaren aldean— metafora generodunak indar berezia hartzen du emakume batek

3. *Odisean* ez da argi esaten noraino izan zituzten sexu-harremanak edo, kontrara, gizonak bortxatu ote zituzten. Badirudi lehen aukerak indar gehiago duela, baina ez dago erabat ziurtatzerik, gizoni bortxaketa ere egozten baitie Odiseok.

Odisea itzuli duen honetan, poema sakon baitago ainguratua emakumeen mendeko-tasunean eta gizonen dominazioan.

Itzulpenaren teoria ezinago argi, are argiago genero-ikuspegiaren leihotik.

Tertius: greko-latinoak euskaraz

Gaur egun, klasiko greko-latinoak nahiko aparte daude gure literatura-sistematik, baina ez da beti hala izan; izan ere, Nor da Nor datu-basean edo Armiamako Euskarari Ekarriak atalean begiratu bat ematea aski da ohartzeko euskaraz baditugula Homero, Eskilo, Sofokles, Euripides, Esopo, bai eta Zizeron, Horazio, Virgilio eta Ovidio ere. Guztiak 1950eko hamarkadaren inguruan ekarriak, gerraosteko erbestean sorturiko *Euzko Gogo*a aldizkariaren abaroko gune kulturalean: Bingen Ametzaga, Jokin Zaitegi, Santi Onaindia, Andima Ibiñagabeitia, Bedita Larrakoetxea... Gehienak apaizak. Ezin esan garai hartan gaur egungoaren tankerako literatura-sistematik genuenik, baina apaiz horiek ditugu gure lehen itzultzaile sistematikoak; hots, nolabaiteko taldetasun batez literatura-corpus jakin bat euskartzea asmo zuten eta horretan sistematikoki aritu ziren lehenak. Ez ziren klasiko greko-latinoekin bakarrik aritzen, garai hartan euskaratuen artean baitaude, halaber, Poe, Whitman, Dante, Heine, Shakespeare eta beste gizon ugari. Halarik ere, klasiko greko-latinoek bazuten beren toki nabarmena, prestigiozko literatura ekartzea baitzen belaunaldi horren helburua, hain zuzen ere euskarak falta zuen hizkera literarioarekin aberaste eta osatze aldera hizkuntza.

Alabaina, hizkuntza-ereduari dagokionez, Resurrección María Azkueren joera «garbizale arkaizante»aren jarraitzaileak ziren, Xabier Mendiguren Bereziartuk *Euskal itzulpenaren historia laburra* liburuan dioen bezala. Gaur egundik begiratuta, testuok artifizialki jasoak eta arrotzak dira, eta muturreraino garbizaleak, Azkueren gipuzkera osotuan edo bizkaieraren batean emanak. Ez da harritzekoa, hortaz, itzulpenok ahaztuta egotea euskara batuaren mirari arrakastatsuen bestaldetik, baliotsuagoak baitira bitxikeria filologiko gisa literatura-itzulpen gisa baino.

Baina hizkuntza-ereduak bakarrik ez du esplikatzen belaunaldi hark urraturiko bideen bazterketa. Gure literatura-sistema apurka-apurka eratuz joan ahala, orobat joan da aldatuz itzulgaien kanona ere azken berrogei urteotan. Ariketa polita da (eta batera ez zorrotza) konparatzea Onaindiaren belaunaldiko kanona, EIZIEn Literatura Unibertsala bildumako lehen 50 aleak (1990eko hamarkada) eta gaur egun, XXI. mendearen bigarren hamarkadaren atarian, Pasazaite, Meettok edo Igela argitaletxeek urtebetean ekartzen dituzten liburuak.

Grafikoak marrazki interesgarriak osatzen dizkigu: emakume idazleen lerroak, esate baterako, gora egin du etengabe, nahi baino gutxiago beti, baina ezin ukatzeko moduan; egile greko-latinoenak, hutseraino behera. Ohartzeko modukoa da, gainera, Literatura Unibertsaleko lehen 50 egileek (1990eko hamarkada) antz handiagoa dutela Onaindiak eta konpainiak ekarri zituztenekin gaur egungoekin baino: bildumaren hastapenetan kaleratutako lehen

50 egileen artean (Jonathan Swift, Anton Txekhov, Mark Twain, Joseph Conrad, William Shakespeare, Lev Tolstoi, James Joyce) emakumezko idazle bakarra dago (Virginia Woolf), eta, hurrengo 50etan, kopuru hori hamarrera ere ez da iristen.

Baina ordurako ia desagertuak ziren idazle greko-latinoak: bakarra dago Literatura Unibertsalaren zerrenda osoan, hau da, Apuleioren *Urrezko astoa*. Eta hori da euskara batuan dugun greko-latino bakanetakoa: bestela, badugu EHUren saiakera apal bat, Virgilioren *Bukolikak eta Georgikak* eta Salustioren *Jugurtaren aurkako gerra* eman zizkiguna, baina kito. Denak latindarrak, gainera.

Alferrikako datuen erauntsi horren ondorio nagusia: literatura euskaratuaren kanoa errotik aldatu da azken 50 urteetan, eta, zenbait subjektu estrukturaliki bazterturekiko zorrak pixkanaka berdintzen hasi ahala, lehen erdi-erdian zeuden hainbat autore (greko-latinoak, kasurako, Shakespeare eta Joyce goxo baitaude oraindik) ertzaren ertzetik ere egotzi ditugu. Zeren, euskaraz, noraino da kanonikoa inor gutxik ezagutzen duen Virgilioren bukoliken edizio bat?

Inondik ere ez dut iradoki nahi emakumeek edo Mendebaldeaz besteko egileek lekua kendu dietenik, aise argudia baitaiteke merezi lukeela hala balitz ere. Hain zuzen, aurkakoa defendatu nahi dut: erraz irudi lezakeenaren kontrara, ez ditugula egile greko-latinoak sakrifikatu behar kanon maltzurra berrikusteko. Galde, bestela, Emily Wilsoni.

Quartus: zergatik ez duen bost axola (edo agian bai)

Literatura unibertsala euskaratzeko dugun gaitasunak baditu hainbat hutsune, eta gehien-gehienek irakurle-falta dute oinarri: ez dugu nahikoa giharrik nazioarteko bestsellerren zirkulazioan garaiz parte hartzeko, eta haien irakurle euskaldun batezbestekoak erdaretara jo behar du halakoetarako. Liburu bat euskaratzea hain da apustu delikatua, non zaila baita arriskatzea testuen, egileen eta abarren hautaketan. Hedoi Etxartek *Senexen* 49. zenbakian bertan seinatua duen bezala, eskuarki egile baten obra bakarra ekartzen dugu, eta, ondorioz, euskal irakurleak liburu bakarra leitu diezaioke euskaraz; adibidez, Milan Kunderaren *Izatearen arintasun jasanezina*. Euskal irakurlea egilearekin zaletuz gero, jai du, eta erdararen batera jo beharko du autore hori sakonago irakurtzeko.

Erdal literaturak euskaratzen eta euskaraz irakurtzen aritzen garenoi komeni zaigu hutsune edo gabezia horien berri izatea, eta, mundu perfektu batean, haiei kontra egitea koiunturak modua ematen duenean (edo ematen badu). Bada, ez nago ziur noraino jabetzen garen zer-nolako hutsunea daukagun egile greko-latinoekin eta zer-nolako ondare fundazional aberatsa ari garen sistematikoki euskaratik kanpo uzten.

Ez nuke asmatuko taxuz azaltzen zergatik merezi duen autore greko-latinoen literaturarekin hainbeste tematzea, eta ez, adibidez, Ekialde Urruneko haikuekin edo arabiar poesiarekin. Hau guztia gogoeta apetsu bat izango zen seguru asko, eta ez serioegi hartu, arren.

Resumen

El presente artículo tiene como punto de partida la traducción de Emily Wilson de la *Odisea* de Homero. Dicha versión pone en tela de juicio diversas convenciones sexistas con frecuencia utilizadas en las traducciones canónicas al inglés, y confiere una especial perspectiva de género a su poética de la traducción. El artículo incide en algunas de esas convenciones, y analiza, de manera informal, la presencia de las obras clásicas grecolatinas en la literatura vasca. Así, señala que los primeros traductores que se dedicaron a traducir literatura al euskera de manera sistemática, hacia la década de los años 50, concedían una gran importancia a la importación de ese canon clásico. El canon objeto de traducción, sin embargo, fue variando a lo largo de la década de los 90 hasta llegar a la situación actual, en la que los autores grecolatinos se hallan totalmente relegados. Como última reflexión, el artículo defiende que, en la línea de la obra de Emily Wilson, es necesario compaginar los esfuerzos para incluir sujetos históricamente menospreciados (como mujeres o autores no occidentales) con la recuperación de la literatura grecolatina.

Résumé

Le présent article a comme point de départ la traduction de l'*Odyssee* par Emily Wilson, qui remet en question plusieurs conventions sexistes que l'on retrouve dans les traductions canoniques vers l'anglais, et qui confère une perspective de genre particulière à sa poétique de la traduction. L'article met l'accent sur certaines de ces conventions, puis analyse de manière informelle la présence des œuvres classiques gréco-latines dans la littérature basque. L'article explique que les premiers traducteurs qui se sont consacrés à la traduction systématique de la littérature vers le basque dans les années 1950 accordaient une très grande importance à la traduction de ce canon classique, qui a toutefois changé au fil des années 1990 jusqu'à nos jours, où les auteurs gréco-latins ont été marginalisés. Enfin, en guise de dernière réflexion, l'article défend le fait qu'il faut unifier l'inclusion de certains sujets historiquement exclus (les femmes ou les auteurs non-occidentaux) avec la réappropriation de la littérature gréco-latine. Unification dont l'œuvre d'Emily Wilson est le témoin.

Abstract

This article takes as its point of departure Emily Wilson's translation of the *Odyssey*, which calls into question some of the sexist conventions repeated in canonical translations into English, and confers a special gender perspective on her translation poetics. The article highlights some of these conventions, and then provides an informal analysis of the presence of Greek and Latin classical works in Basque literature. The article explains that the first translators who systematically translated literary works into Basque, in and around the 1950s, considered it extremely important to translate this classic canon into Basque. This canon, however, has changed significantly from the 1990s to the present, marginalizing the Greek and Latin authors. As a final reflection, the article defends the idea that the inclusion of certain subjects that have been historically excluded (such as women and non-Western authors) must be unified with the recovery of Greek and Latin literature, a unification whose proof is Emily Wilson's work.